

5.gaia MASA POLITIKOAREN FORMA POLITIKOAK

ERREGIMEN POLITIKO MOTAK

1. EZ DEMOKRATIKOAK

TOTALITARISMOAK:

Régimen político en el que el poder es ejercido por una sola persona o partido de manera autoritaria, impidiendo la intervención de otros y controlando todos los aspectos de la vida del estado.

Motak

Hiru totalitarismo mota bereiz ditzakegu:

- 1) Ezkerrekoa (Stalinismoa)
- 2) Eskuinekoa (Nazismoa)
- 3) Erlijioso (Talibanen erregimena)

Ezaugarriak (Linz-en ereduaren arabera)

- Alderdi politiko bakarreko sistema politikoak dira; hots, eragile politiko bakarra dago. Alderdi honek estatuaren egitura oro kolonizatzen du eta bere gain hartzen du botere guztia.
- Ideologia garatu eta hertsia daukate; zehatz eta argia.
- Mobilizazio erregimenak dira. Gizartea etengabe mobilizatuta mantentzen da egituron baitan.
- Liderraren garrantzia: liderra edo zuzendaritza taldearena, alegia.

- Boterearen jardueraren mugak ezin dira aurreikusi (izu totalitarioa). Oposizioan kokatzeak ondorio larriak izan ditzake.
- Aldaketa erradikala dute helburu

Hanna Arendt (Autore Liberala)

Honek guztiz berritatu joko du menperen politikoa, XX.mendearen sortutako baten gisan. Horrela, gizarte harreman sarea desegituratu eta, era horretan, erregimen politikoarekiko aukera guztiak ezinezko bihurtzen dira.

- Ideologia totalitarioa; egia osoz osaturikoa, eztabaida ezina (ortodoxia)
- Izuaren erabilera, gizartearen autonomia zantzu horien bidez amaitze aldera
- Gizartearen antolaketarako eta mobilismorako ezinbesteko egitura, alderdi bakarrez osatutakoa

AUTORITARISMOAK:

Régimen político que se basa en el sometimiento absoluto a una autoridad.

Autoritarismo perfektuak:

- Aniztasun politiko mugatua eta ez erantzulea. Erregimen politikoa koalizio bateko kideek sortzen dute; hots, gizarte horretako sektore sozial nagusiko kideek alegia. Frankismoan eliza, armada, goi burokrazia eta abarrek osatzen zuen koalizio hori. Gainera, koalizioak ez du inolako erantzukizun politikori herriaren aurrean.
- Justifikazio ideologikoa garaian garaiko eta tokian tokiko balioetan oinarritzen da: aberria, ordena, hierarkia, modernizazioa ...
- Mobilizazio maila baxuko sistemak dira: ez dugu alderdi potenterik topatuko hauek.
- Ez du egitura politiko berezirik sortzen
- Boterearen pertsonalizazioa, liderra

- Erregimenaren jardueraren mugak zehaztu gabeak dira baina aurreikusi daitezke

Autoritarismo tipologiak:

1) Erregimen tradizionalak (ad. Saudi Arabia)

- Monokratikoak dira
 - Legitimazioaren oinarria tradizioa da, ondarea
- a) Erregimen sultanistak (Marcos-Filipinak / Somoza-Nikaragua)
- “Sultan” agintari politikoa eta kontrol ekonomikoduna.
- b) Oligarkia lehiakorrak (Espainiako monakiaren berrezrtzea, 1873-1923)

2) Erregimen zibilak

- a) Mobilizazio erregimen faxista
- b) Mobilizazio erregimen komunistak alderdi komunistaren papera, eragile politiko eta egituratzaile gisa.
- Eztatbaida: erregimen autoritarista komunistak beren buruei demokrazia popular deritze.
- c) Mobilizazio erregimen nazionalistak

3) Erregimen militarrek

- Armada da egitura nagusia
- Orokorrean ekonomikoki garatu gabeko lurraldeetan ematen dira, egitura oso ahulekoak. Horrela, armada zen egiturarik sendoena, eta horrek ematen dio halako pisua.
 - Armadak badu ideologiarik? Printzipioz ez; aberria, ordena eta etsaitasunaren modukoak aski dira.

Motak:


- a) Burokratiko – militarra (Primo de Rivera, Espainiako sektore burokratiko baitan)
- b) Korporatibista edo estatalismo organikoa (Frankismoa)
- Elementu naturalek osatzen dute “familia, municipio, sindicato”
 - “Ley constitutiva de las Cortes”
- c) Burokratiko – autoritarioa (Hego Amerika; armada eta burgesia –transnacional- bat): Chilen adibidez, bertako eta AEBtako burgesen interesak.

- Finer
 - Kontrola
 - Zuzendaritza
 - Administrazioa

- Nordlinger
 - Moderatzaileak
 - Zaindariak
 - Gobernariak

EZBERDINTASUN NAGUSIAK:





2. ORDEZKATZE SISTEMAK / SISTEMA DEMOKRATA-LIBERALAK

Mokoroak nahiago die *ordezkatzete sistema* deitu demokraziei, deitura honek hobe adierazten ei du sistema hauen izaera.

Zertan oinarritzen dira ordezkatzete sistemak maila kontzeptual eta praktikoa?

Ordezkatzete sistema politikoak demokraziaren eredu greziar klasikoaren aurka eratu ziren (Frantziar Iraultzan eratu zen sistema, adibidez)

- *Constant*: berak ere ez zion demokrazia deitu egin zuen planteamenduari, monarkia errepublikarra baizik.
- *Madison*: EEBBko Independentzia garaian eragile fuertea izan zen. Beste hainbat autorerekin batera *The Federalist* artikulua bilduma sortu zuen. Honako bereizketa burutzen zen bertan:
 - o Greziako demokrazia ereduari, herriak, herritar guztiak dira eragile kolektibo.
 - o Errepublika modernoan, ordea, herriak eragile kolektibo gisara, ez du esku-hartze zuzenik komunitatearen gobernuan:
 - Izan ere, ordezkari bildu ma bat izango da esku-hartze hori izango duena
 - Subiranotasunaren azalpen edo erabilera ordezkari multzoari (parlamentuari) dagokio

ORDEZKARITZA

Hiritarren eta gobernarrien arteko izaera egonkorreko harremana da ordezkari-tza; zeinaren bidez bigarrenetik, hauteskunde bitarteko instituzionalen erabileraz eta erantzukizun politikoaren mende egonik, lehenengoan izenean eta hauen interesei begira gobernatzeko baimena baitute – Maurizio Cotta

- Bi subjektu bereizten dira beraz: herritarrak eta ordezkariak. Harremanean daude, eta, beraz, botereaz mintzo gara. Botere harreman horretan batzuek errekurtso gehiago izango dute (gobernariek).
- Botere harreman hori kontrol bitarteko baten bidez erregulatuta dago (hauteskundeak). Horien bidez hautatzen dira gobernarriak eta horren bidez ebaluatu daiteke egindako lana (konfiantza berretsi ala kenduaz).

- Kontrol bitarteko hori dela medio (hauteskundeak) eta horiek suposatzen duten legitimazio tresna dela medio, herritarrek, ordezkari edo gobernariengan, subiranotasunaren zesio bat (uztea) egiten du.
- Zesio hori herritarren interesen defentsan burutuko da.

Ezaugarri hauek aintzat hartuta, esan genezake Atenaseko demokrazia ereduarekin alderatuta nahikoa ezberdina dela gaur egungoa:

Alde batetik, subjektua bera ezberdina gaur egun.

Gainera, bitarteko teknikoak ere ezberdinak dira: orain hauteskundeak burutzen dira, eta, lehen zozketa bidez hautatzen ziren gobernariak.

ORDEZKATZE SISTEMAK

Ordezkatze sistemen teoria garaikidearen erro ideologiko eta diskurtso legitimatzaileak hainbat sustrai ditu; hots, hainbat une historikotatik dator.

- Teoria klasikoa:

Aristotelen lanaz ari gara. Atenaseko demokrazia zuzenaren defendatzaile izan ez zen arren (kritikatu egin zuen), bere lanetan hiru gobernuen teoria garatu zuen.

Haren esanetan hiru gobernu forma bereiz zitezkeen, gerora, forma bakoitza bi azpiformatan banatuta. Horietan interes orokorraren defentsa eta interes partikularraren defentsa bereizi zituen.

Hiru gobernu forma	Interes orokorra	Interes partikularra
1. Herritarrak	Politika (errepublika)	Demagogia, manipulazioan oinarrituta (demokrazia)
2. Monokratikoa	Monarkia	Tirania
3. Elitea	Aristokrazia (Gutxi batzuk bakarrik)	Oligarkia

Hemen aintzat hartzen dena gobernuaren eraketa da: gobernuaren osaketa eta bere jokaera, hain zuzen ere. (Kontuz kontzeptuak gaur egungoekin nahastearekin).

Horrela, planteamendu horietatik abiatu zen gaurko ordezkatzeko sistemen (sistema demokratikoen) oinarrietako bat.

- **Tradizio erromatar erdi arokoa:**

Erromatar deritzo Erromako zuzenbidearen tradizioa edo edukiak jasotzen dituelako. Erdi Aroko legelariak, zuzenbide erromatarrari helduz, sortutako teorizazioa izango da beraz.

Hauek subiranotasunaren aferaz mintzo dira; hots, subiranotasuna nori dagokion dute aztergai.

Hauen planteamenduaren arabera Printzeak (governariak) agintea badu, herriak utzi edo helarazi diolako izango da; hots, herriak zezio bidez utzi dio agintea Printzeari.

Era honetan, bereizi egiten dira titulartasuna eta jarduteko eskumena. Subiranotasunaren jabea herria litzateke, ordea, Printzeak luke hori erabiltzeko eskumena.

Horrek hainbat galdera sor diezazkiguke:

- Herritarrek printzearengan egiten duten zezioa behin betirakoa da? Kontrol baldintzarik ezarri daiteke zezio horretarako? Zein baldintza? Erdi Aroan, jada, aritu ziren horretaz. Adibidez, Marsilio (*defenso noseque*)
- Autore hauek defendatuko dute governariak zezio horren bidez subiranotasunaren erabilera okerra burutzen badu tiranozidiorako aukera dago ala ez?

- **Tradizio errepublikano modernoa:**

XVI.mende amaieratik hasita, baina, bereziki, XVIII.mendean garatua. Madison, Locke, Sieyes, Rousseau, Montesquieu ...

Hauek monarkia eta gobernu errepublikanoaren (horrela deritzote ordezkatzeko sistemari) arteko kontraposizioa planteatzen dute. Hots, boterea pertsona bakarraren esku dagoen ala hainbat ordezkari osatutako erakundeetan.

Honakoa une historiko zehatz batean kokatu beharra dago; Iraultza Liberalen garaipen garaian. Horrekin eta sektore tradizionalaren aurkakotasunarekin batera, monarkia absolutistaren aurkako proiektu lez garatuko da.

Honek ordezkatzeko sistemaren ideia eta praktika dakartza. Horrekin batera, legearen inperioaren oinarria (monarkia absolutuaren jarrera kontrolatzean datzana) ere inposatzen du.

DEMOKRAZIAK, ORDEZKATZE SISTEMAK:

Gaur egun demokrazia deitzen diogu gauza orori. Ordea, zerikusi txikia dute ereduok elkarren artean. Horrela, nahiko nahasia da eztabaida.

Ordezkatze sistemak osatzen dituzten definizioen ezaugarri edo edukiak:

Zenbait definizioen ezaugarri eta edukiak

- Botere errekurtsio politikoaren jabetza hiritar guztiena da. Subiranotasuna zatitua da. (Rousseau)
 - o Hemendik abiatuko da gaur egungo sistemen praktikan dagoen sufragio eskubidea (zeina unibertsala den).
 - o Denok bagara subiranotasun zati baten jabe, sistema demokratiko batean, agindu inperatiboaren formaren batek egon beharko luke indarrean. Horrela, ordezkaria bozeramaile soil litzateke, bere boto emaileek agintzen diotena adierazi beharko luke soilik. – Ez da praktikan egia. Ordezkatzen agindua da gaurkoa, ordezkaria librea baita agintzeko.
- Gutxiengoaren eskubideen babesa. Eskubide zibil eta politikoak besterezinak dira. (J.Mill).
 - o Gutxiengoak ere ezabatu edo uka ezinezko eskubideak dauzka.
 - o Elkartzeko eta antolaketarako askatasuna, pentsaera eta adierazpen askatasuna, sufragio eskubidea, hautagai izateko askatasuna, informazio askatasuna ...
- Gobernariak hiritarren hartutako erabakiaz izendatzen dira, Hauteskunde lehiakorrak. (Shumpeter).
 - o Geroxeago azalduko du
- Helburua berdintasuna da, berdintasun politikoa ez ezik sozioekonomikoa ere bada (Marx, Macpherson).
 - o Honek nahikoa aldatzen du elementuaren izaera.
- Hiritarren nahia bete behar da. (Barber)
 - o Lincoln “Herriak, herriarentzat eta herriarengatik bideratutako sistema politikoa”.

Orain gaur egungo definizioetatik abiatuko gara, hainbat autorek egiten duten bereizketara.

Lehen hiru puntuak (1,2,3) prozedura, bitarteko eta demokraziaren formez mintzo dira. Horrela, **demokrazia formalaz** ari dira, **demokraziaren definizio enpirikoaz**. Beste biak (4,5), berriz, demokraziak bete beharreko edukiez mintzo dira; **demokrazia substantiboaz**, substantziara jotzen du. Horrela, eztabaida bat sortzen da joera ezberdinak baitaude.

Demokrazia formala (1,2,3)

Autore asko eta askok planteatzen dute horrela demokrazia. Printzipioz, aipatzen diren ezaugarri guztiak enpirikoki froga daitezke:

- Alderdi bat baino gehiago (elkartzeko eta aurkezteko eskubideen bermearen adibide)
- Hauteskunde lehiakorrak (regularrak, epe jakin batekoak, sufragio unibertsalekoa?)
 - o Sufragio aktibo
 - o Sufragio pasiboa
- Hedabide alternatiboak (prentsa askatasuna)
- Eraitzen araberako ordezkariak zein gobernu erakundeak

Hau lotu daiteke hasieran planteatu genuen eskubide eduki batekin: teoria-politiko eta filosofia-politiko.

- Teoria politikoa ikerketatik jasotako ondorioen multzoa da: zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, zer egin daitekeen eta zer ez. Filosofiak izan beharko lukeenari egiten dio erreferentzia.

Demokrazia formalak planteatzen duena prozedura hutsal batzuk dira. Ordea, Mokoroaren ustetan demokrazia substantiboaren indarra behar du benetan garatu dadin.

Zeren, bestela honakoak sortzen dira: berdintasun politikoa berbera izan daiteke eskubide sozioekonomikoak berdindu barik? Gure aburuz ez.

Bernard Manin, Frantziarra:

Ordezkatze gobernuaren oinarriak lanean, ordezkari sistemak sortu zirenetik gaur egunerainoko garapena azaltzen du. Bere arabera.

Sistema hauek 200 da piku urte (1780 ingurutik) dituzte eta urte guzti hauetan lau ezaugarri edo elementu mantendu egin dira (gainontzeko hainbat aldatuz joan diren arren). Horrela, honakoak dira ordezkatzeko erregimenen oinarriak:

- Gobernariak hauteskudez hautatuak dira eta hauteskundeak denbora erregularrez burutzen dira
- Gobernatzen dutenen erabakitze prozesuak hautesleengandiko autonomiaz egiten dira
 - o Ordezkatze aginduaren oinarria (\neq agindu inperatiboa)
- Gobernatuek beraien iritzia azaltzeko askatasuna dute; alegia, gobernarien kontroletik at egin dezakete beren adierazpena
 - o Adierazpen askatasunaz mintzo da
- Ordezkatze sistematan hartzen diren erabaki politikoak, eztabaida prozesu baten ondorioz hartzen dira; hots, deliberazio prozesu baten ondorio dira

Esan bezala, bada, gainontzekoak aldatu egin dira: sufragio adibidez.

Bere azterketan, adibidez, Maninek aztertzen du ea zergatik onartzen edo mantentzen den adierazpen askatasuna? Bada, hori onartu zen ordezkatzeko agindua indarrean jarri zelako.

Demokrazia sustantiboa (4,5)

Helburuetara bideratutako demokrazia

	Ezaugarriak	Gauzatze gutxienekoa	Gauzatze ertaina	Gauzatze maximoa
HERRI SUBIRANOTASUNA	Partehartzea Kontrol bitartekoak	Demokrazia ordezkatzaila	Demokrazia plebisitarioa Aurrekontuaren parte-hartzea	Demokrazia parte hartzailea
ESKUBIDEAK eta ASKATASUNAK	Eskubide besterezinak	Eskubide zibilak	Eskubide sozialak	
BALIO DEMOKRATIKOAK	Gehiengo eta gutxiengo arteko harremana	Diskriminaziorik ez	Tolerantzia	

DEMOKRAZIA EKONOMIKOA	Ondasunen banaketa eta erabaki ekonomikoak	Laissez faire	Ongizate estatua Aukera berdintasuna	Eraitzen berdintasuna
----------------------------------	---	---------------	---	--------------------------

Demokrazia sustantiboaren gauzatze maila ezberdina da demokraziaren maila ezberdinetan. Marxen arabera, gauzatze maximoa dagoenean hiritar guztien berdintasuna ematen da.

DEMOKRAZIEK BETE GABEKO PROMESAK (Bobbio)

- Subjektu politikoa taldeak dira, eta ez gizabanakoak. Horrek neokorporatibismoa eta alderdikrazia eragin dezake.
 - o Demokraziaren diskurtsoan planteatzen den kontua da hau. Aitzitik, sistema “demokratiko” hauek ez dira demokratikoak, alderdikratikoak baizik.
- Ondorioz, taldeen agindu inperatiboa gailentzen da:
 - o Taldeak ez dira libreak eta alderdien diziiplina nagusitzen da
- Demokraziak ez du berrosatu gobernarien eta gobernatuen arteko identifikazioa; aitzitik, politikaren profesionalen elitea berrosatu du.
 - o Hots, bi plano ezberdinetan antolatzen dira gobernarien eta gobernatuen taldeak. Beren arteko harremana hautsita dago.
- Demokrazia ez da hedatu komunitatean eragin handiko erabakiak hartzen diren esparruetara: hala nola ekonomiara, administraziora ...
- Demokraziak ez du, guztiz, botere errekurtsio politiko guneen opakutasuna argitu. Bizirik diraute estatuaren sekretuek, estatu arrazoiak, estolderiak eta abarrak.
- Demokraziak ez du handitu arazo publikoekiko interesa; apatia politikoa eta interes pribatuen defentsa dira garatu direnak.

- Demokrasiak ez ditu politikaren eta diruaren arteko harreman iluna eta politikaren eta hedabideen arteko lotura estua hautsi.

DEMOKRAZIA EDO ORDEZKATZE SISTEMEN TIPOLOGIA:

Ordezkaritza, oro har, alderdi politikoetatik dator (ordezkariak alderdi politikoetako kide izaten dira, alegia). Horrela, demokrasiak ezberdinak dira bertan dauden alderdien arabera. Zehazki, bi irizpideren arabera da Alderdi-Sistemaren nolakotasuna (Sartori):

1. Alderdi kopurua
2. Distantzia ideologikoa
 - a. Ad: EHBildu eta PPK distantzia handia
 - b. Ciudadanos eta PPK txikiagoa

Demokrasiak lehia hauteskunde bidez garatzen dira oro har. Lehia hauteskundeak ematen diren herrialdeetan demokrazia edo alderdi sistemak bi tipologietan banatzen dira.

1) Alderdi biko sistemak:

- AEB adibidez: errepublikanoak vs demokratak.
- Alderdi handiak dira eta ahalik eta bozka gehien izatea dute helburutzat
- Horretarako botere maila zentroan oinarrituko dira eta, ondorioz, lehia politikoa zentripetoa izango da
- Gizartean gertatzen diren konfliktu larriak ez dituzte bultzatzen, eta politika moderatuan jarduten dira
- Erresuma Batua ere beste adibide bat da: alderdi laborista vs kontserbadorea

2) Alderdi askotariko sistemak:

Hauetan bi alderdi baino gehiago izaten dira.

- Moderatuak: 3-5 alderdi artean.
 - Distantzia ideologikoa txikia izaten da
 - Ad: Alemania
- Polarizatuak: 5-6 alderdi artean.
 - Distantzia ideologikoa handia

- Ad: Katalunia
 - Bi bloke sortu dira eta beren artean ez dago inolako harremanik
- Segmentatuak: 5 alderditik gora.
 - Ordea, alderdi horiek konpartimentu itxitan bana daitezke; hots, joera izango dute beste alderdiekin kontsentsua sortzeko.
 - Horrela, ez da lehiarik izaten alderdi politikoaren artean.

LIJPHART:

Irizpideak → kultura politikoaren zatiketa maila eta elite politikoaren joera.

1) Kontsentsuzkoa eta Wensminster ereduakoa

Irizpideak	Kontsentsuzkoa	Wensminster
Gobernu koalizioak	Gobernu koalizioaren eredu ohikoena	Alderdi bakarreko gobernua
Exekutiboa / Legislatiboa	Exekutiboak gehiengo parlamentarioa	Exekutiboak
Ganbaren antolaketa eta gutxiengoaren ordezkariak	Eredu exekutiboa izateak lotura zuzena du ganbararen antolaketan eta gutxiengoaren ordezkarietan	
Alderdi sistema	Alderdi askotariko sistema	Alderdi biko sistema
Haustura larriak		
Huteskunde-sistema	Proporzionala	
Deszentralizazio politikoa	Bai	Ez
Konstituzio idatzia (Parlamentuaren subiranotasun konstituzionala)	Bai	Ez

2) Zentrifugoa:

Zatiketa maila oso handia ematen da

3) Zentripettoa:

Zatiketa maila ez da hain handia, baina nabarmena da eta funtzionamendu demokratikoaren aldeko jarrerak aurkituko ditugu (Adibide argia da Frantzia).

4) Despolitizatua:

Zatiketa maila txikia izango da, eta kontsentsurako joera izango da. AEBn ematen da hau. Izan ere, ez dute sistema demokratikoa zalantzan jarriko eta erabakiak hartuko dituzte hori finkatzeko.

GOBERNANTZA EREDUA:

Gaur egungo gobernantza ereduak gure sistema politiko hauetan harreman eredu barnerakoiago bat garatzen ari dela erakusten digu. Printzipioz eredu hierarkikoa, hots, ordezkatzeko sistemaren eredu tradizionala, alde batera utzi dugu eta eredu berriak abiarazi dira.

Bi oinarri:

- 1) Bereizketaren oinarria: Honen arabera eskumenen eta lanen bereizketa zehatz bat ezarriko da, publikoaren eta pribatuaren arteko mugaketaren bidez.
- 2) Agintea: Eskumenak monopolio erregimenean erabiltzen ziren; hots, arau eta politika publikoen garapena instituzio publikoei soilik zegokien eta aginte hori ezin parteka zitekeen.

Gaur egun, ordea, erabakiak bi eremuen artean hartzen dira eta oso lausotuta dago eremu publikoaren eta eremu pribatuaren arteko muga. Horrela:

- Lehen gobernuan aginte bakarra bazen, orain gobernuaren interes ezberdinen arteko bitartekari lez azaltzen da.

Gobernantza ereduaren sorreraren hainbat kausa:

- Estatuaren finantza krisialdia (1970.hamarkadaren hasieran)

Krisialdi honen aurrean kudeaketa publikorako forma berriak aurkitu behar izan ziren. Hala nola, zerbitzu publikoen esternalizazioa (lehen estatuak ematen zituen hainbat zerbitzu publiko eremu pribatura pasako dira).

- Aldaketa ideologikoa (neoliberalismo garaian)

Honekin batera merkatua balore gisa erabiltzen hasiko da: goraipatu egingo da merkatua eta erabaki publikoak hartzerakoan inkorporatu beharrekoa izango da. Hots, eragile ekonomikoei tokia egin behar zaie.

- Globalizazioa:

Globalizazioaren aurrean estatu batek erabaki nagusiak bere baitan hartzeko gaitasuna galtzen du. Horrela, erabakiak hartzean maila ezberdinetako eragileen erabakian aintzat hartu behar izaten dira.

- Gero eta gizarte konplexuagoa:

Aldaketa sozialak azkartu egiten dira eta gizartea geroz eta konplexuagoa bilakatzen da.

Gobernantza ereduak:

Esan bezala, beraz, gaur egun gobernantza duen bakarra ez da gobernu; eragileen sareek ere badute gobernantza.

- Sareetan antolatutako eragile horiek eragile pribilegiatu bilakatu dira.
Nazioarteko erakundeetan firma ekonomikoa dugu adibidetzat.

Hori horrela izanik, erantzukizuna guzti horiena da. Halere, gizarteak zailtasunak ditu erantzukizun horri erantzuna eskatzerakoan.

Esan genezake pribatizazioa eta esternalizazioa direla medio, eragile sareek gero eta botere handiagoa dutela.

Horrela, bi gobernantza eredu bereiz ditzakegu:

1) Gobernantza liberala:

Askatasunak, eskubide indibidualak eta estatu ez parte-hartzailea. Kasu hauetan beharrezkotzat jotzen da botere publikoaren eta gizarte zibilaren arteko harremana berrerekatzea; hots, erabaki nagusiak gizarte zibilaren esku uztea aldarrikatzen da, estatuaren eginkizunak urrituz.

Horrekin, estatua koordinazio erakunde huts bilakatuko litzateke. Deszentralizazioa, pribatizazioa eta abar emango lirateke horretarako.

2) Gobernantza demokratikoa:

Eredu oso heterogeneoa biltzen da bertan eta demokrazia indartzea du helburutzat.

Hauen helburua erabaki publikoaren eta hiritarren arteko distantzia murriztea litzateke: horrela, harreman sare bat planteatzen da pribatuaren eta publikoaren artean. Hiritarren inplikazioa, beren arteko eztabaida, tokiko erabakien balorizazioa, lankidetzeta eta koordinazio dinamikak sustatzen dira honekin.

ORDEZKATZE SISTEMEN AZKEN FASEA:

Ondorengo arrazoiek ziurgabetasunera daramate ordezkatzeko sistema

- Botere betearazlearen nagusitasuna eta botere legegilearen galera
- Alderdi politiko tradizionalen urruntzea + eliteen autonomizazioa + hiritarren geldotasuna
- Maila askotariko gobernantza
- Globalizazioa: arazo berriak eta jarduteko era berriak